


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

39. zenbakia

94ko urtarrilak 14



Munduaren zabaletik

MUNDU BAT GOIERRIN: GOIERRITARRA BERRITUA HAMABOSTERO ORAIN

Zure "etxea" lau haizeetara "anuntziatu" aldizkari "berrian"

Euskaraz nahiz erdaraz, Goierri gehien zabaltzen den aldizkaria, debaldeko GOIERRITARRA duzu (39 zenbaki dagoeneko), eta 1994ko urte berritatik hasita, hilabetekari izateari utzi eta hamabostekari bihurtu dugula adierazteko zuzentzen dizugu ohar hau.

Gure asmoa hurrengo besterik ez da: eskualdean gero eta informazio gehiago sortzen direnez (herri eta eskualde mailakoak), guzti horiei kabida ematea. Guzti hau burutzeko ezinbestekoa izango zaigu akordio eta hitzarmen batetara iristea Goierriko Udalekin.

Argitaratuko dugun zenbaki bakoitzaren tirada igotzea espero dugu 5.000 aletara, geure harpidedun berrien eskaera asetzekotan. 15.000 irakurle eukitzea espero dugu, Goierriko euskaldungoaren gehiengoa.

GOIERRITARRAren Aldi Berriak suposatuko duen zama ekonomikoari aurre egitearren (nahiz Udalen diru-laguntza igo, igoko den), publizitate eskaintza zabalago bat aurkezten dizuegu, iragarkien kostua jeitsi eta beren efektibotasuna eta "afektibotasuna" igo egingo dela adieraziz.

Oraingoz, inongo aldizkarik (eta egunkari zenbaitek) ez duten zabalpena du Goierri GOIERRITARRAK, irakurlerik onena (3.000 harpidedun, 9.000 irakurletik gora, kultur-maila batekoak). Zure enpresa, denda edo industria goratzez gerotan, haxe duzu propagandarik apartena. Eta zer izango da laister...!

PUBLIZITATE TARIFA BERRIAK

--Prezio hauek zenbaki baterako balio dute:

Modulo 1	3.000 pzta.
2 modulo	6.000 pzta.
3 modulo	9.000 pzta.
4 modulo	12.000 pzta.
6 modulo	18.000 pzta.
Orri erdia	25.000 pzta.
Orri osoa	50.000 pzta.

--10 zenbaki edo gehiagotan publizitatea egiten dutenentzat ondorengo deskontua daukagu:

Modulo 1	2.500 pzta.
2 modulo	5.000 pzta.
3 modulo	7.500 pzta.
4 modulo	10.000 pzta.
6 modulo	14.000 pzta.
Orri erdia	22.500 pzta.
Orri osoa	45.000 pzta.

☞ Publizitate kobraketa banketxe bidez egiten dugunez, zure kontu korrontetik kargatuko genizuke, emango bazenigu.

☞ Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita gurea.

☞ **GOIERRITARRA** Argitaratzen du: "Goierriarrak" K.E.

☞ **GOIERRITARRA Aldizkaria Dorre Etxea 1.;124 posta kutxa. Ordizia.**

Tfnoa.: 889612. Faxe: 161463 ("Goierriarrarentzat" adieraziz).

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

39. zenbakia. 94.eko Urtarrilak 14. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"
Kultur Elkartea.

Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).

Tfna: 889612. Faxe: 161463.

124 posta kutxa, Ordizia.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea: Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Ale honetako kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Marijoxe Madariaga, Joxe Begiristain, Xabier Gonzalez Ezama, Ana Irastorza, G. O. T., Nikolas Errasti, Rufino Iraola, Aloña Galarraga eta Antton Idiakez.

Azala: Askapena

Fotokonposaketa eta maketazioa:




GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANtZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



22. elkarrizketa: *Bixente Barandiaran: "Bertso-tan eman ditut une goxoenak"*

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA..... TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

NON ZER

4. eskutitzak

5. agenda: *intereseko telefonoak, gastronomia, bota bertsoa, Ordiziako azken feriadebaldeko iragarkiak, egutegiak...*

8. iritzia txandaka: *Goierriko Objektore Taldea*

9. inkesta, *Gabon ondoren, erregimena? hemeroteka*

10. berriak labur

12. erreportaiaa: *Brigadak: Askapenarekin mundua ezagutuz*

14. hemen eta orain: *Enpleguarekiko solidaritateko plana, goierritarrak munduan*

15.-20. herriz herri

21. kirola: *Harri Garmendia, lortutakoarekin gustora.*

23. goierritar klasikoak: *Alfontso Mari Zabala Etxeberria*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

GOIERRITARRAK
GOIERRIKO
UDALEN
LAGUNTZA DU

Idiazabal-Ordizia busa: nahi duenean?

Urteak badira ere "Villafranca" k existitzen ez duela, Ordizia duela izen ofizialtzat, oraindik "Villafranca" darama autobusaren aurrekaldean agirian Idiazabalgo lineako "Pesa"ko busak. Ez da hori txarrena, ordea, nire ustez (Zegamako lineakoak ere "Villafranca" jartzen duela ere esan dezake norbaitek; Zaldibiakoak ez ordea).

Urtean zehar gaitzerdi (Beasain eta Ordiziako udaltzainek txintxo jartzen dituzte ordutegiak, hori ez da arazoa), baina uda garaia iristen da eta ia inork ez daki noiz datorren eta noiz dihoan, zerbitzuak murrizten dira eta kaosa datorkigu autobuszaleoi. Zenbait festa iristen dira, Beasaingoak esate baterako, eta Idiazabalgo busa ez dela pasatzen bertatik, horixe bera gertatu zitzaidan arratsalde oso batez. Pasatzeko arrazoi gehiago! Jende xumeok nola festaratu behar dugu, helikopteroz? Taxisa hartu behar, ondorioz.


Are okerragoa dena eta behin baino gehiagotan gertatu zaiguna, berriz, zintzilik utzi gaituela, edo azkenekoa



Olaberriraino iristen dela eta Idiazabaleraino ez gaituela igoko txoferrak, edo minutu pare bat edo bi pare lehenago atera dela atera behar zuen lekutik, irteera-orduak era arbitrarioan aldatzen ote dituzten susmoak, kotxe bat aberiatu zaiela eta, besterik ez dutenez, bada... gabe...

Bere neurritik atera zena, erabat amorrarazi gintuena joan den Erregeguneko bezperakoa izan zen: kabalgata zela Beasainen eta arratseko 7,30etan Ordiziatik irten behar zuen busa ordu bete beranduago atera zela. Pulamentu hobeagorik ez bada, garraio publikoei muzin egingo dio jendeak (bai Idiazabalgoa eta bai Lazkaokoa ez

dabiltza dagoeneko jendez gainezka), eta jenderik ez badu erabiltzen garraio kolektiboak, desagertzera kondenaturik egongo da. Kontuak atera beharko genituzke denok.

 E. Iparragirre

Erredazio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota helbidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura eman beharko dira.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gaszteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.

Agenda

Intereseko Telefonoak

BEASAIN

Ertzaintza:	880961
Udaltzaingoa:	881355
Taxiak:	880367
Epaitegia:	881681
Notaria:	888789
Udaletxea:	885900
Suhiltzaileak:	881355
DYA:	464622
Gurutze Gorria:	882835
Zumarragako Hosp.:	723913
Anbulatorioa:	461111
Anbulantziak:	880957
Butano:	882576
Posta Bulegoa:	880967
Pesa:	880668
Estellesa:	452949
Renfe:	880853
Alkoholiko Anon.:	284515
Ihes Inform.:	427666

Errezeta



Itziar Irastortzak emana, Urbitarte Sagardotegia -Ataun

BAKAILAU TAKOAK

Osagaiak: *Kilo 1 bakailau Kiloerdi piper berde Tipola ttiki bat Litroerdi olio (lodia eta ona)*

Berutzen, gezatzen jarri bakailaua 48 ordutan. Ontzi

batean ipini piparrak eta tipula, egin ditezela xuabe-xuabe. Zartagi batean olio dexente isuri, bakailaua urretatik atera, pasa ogirinetan, zartagira bota, bi buelta eman eta barruak ondo frejiturik dituela atera bakailau takoak. Piperrak gaineratu txukun eta mahairatu.

Bota bertsoa



Joxe Ramon Elortza Gaia: urte hasera krisiarekin Doinua: "Begira nago jarria bera"

Urte haserak badakarkigu ohizko den triki traka eguberriak pasa ondoren egundoko erresaka dirua dago berapenetan ta salneurriak goraka guztiok zalapartaka (bis) krisisa berriz bilakatu da gurutz bideko etapa urtarrietik abenduraino amaitzen eztan aldapa (bis)

Kinka larrian urperatzeaz ekonomian batela sendi askotan gabon saria langabeziko txartela patrikak hotz ta burua bero zein egoera krudela agintarien eskela (bis) lenez gainera gerriko hori hestutu beharko dela horrela bada exenpluakin predikatu dezatela (bis)

Serragi

TAPIZERIA - DEKORAZIOA

Goierrri, 12
Tfona: 88 31 53

ORDIZIA

HEGOA TABERNA

Goierrri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea
Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfona: 88 21 49 BEASAIN



LADA

ARANDIA

Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA



MUJIK LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



ZUMALAKARREGI MUSEOA, ERAKUSKETA: "XIX Mendea, bi munduen arteko zubia"

Ormaiztegiko Kultur Etxean. Iardunean hilak 31 arte. Ordutegia: 5etatik 8etara. Goizetan eta larunbatetan ikusteko Zumalakarregi Museora deitu. Antolatzaileak: G. F. A., Z. M. eta Ormaiztegiko Udala.

Erakusketa honek XIX gizaldiko Gipuzkoa ezagutaraztea du helburu, horretarako hiru ikuspuntu oso desberdin emanaz beste hiru ataletan banatuta. Lehen sailean XIX mendeko argazkiak: Tolosako burgesak eta Pio IX, Urumeako garbitzaileak eta Austria-Hungariako Sissi enperatriza, neskak eta mutilak, Ormaiztegiko zubi ospetuaren argazki zaharrena,

kale eta baserriko jendeak, pobreak eta aberatsak, Museoko ikertzaileek lortutako argazki ikusgarriak eta profesionalak erakusketarako utzitako erretratuak.

Bigarren sailak, gaur egunean aurreko mendeko Gipuzkoako ondareari ateratako argazkiak agertarazten dizkigu. Sail berritzaileena, berriz, argazki tailer, institutu, eskola publiko eta pribatukoek (tartean Ormaiztegiko Herri Eskolekoek), Z. M.-ren deialdi publikoari erantzunez, egin eta bidali dizkietan argazkiak osatzen dute: gipuzkoar eskolameek horrela ikusi dute XIX mendeko Gipuzkoa.

Ordiziako azken azoka

Nobedadeak: ardi gazta berria, 1.300-1475 pzta.-k.
Bertako produktuak:
abereak: arkuma, 200 buru, 375-400 pztan.-k; untxia (4 zaku), 205 k. Bertako gazta, arraultz, landare, barazki eta eta kanpoko fruetuetan ez da aldaketarik eman aurreko astetik.
Gaztak (kiloa): 700-1.000; ardi-gazta, 1.300-1.600; nahasia, 950-1.200.
Arraultzak (dozena): baserrikoak, 190-200; granjakoak: 3.: 110-115; 2.: 125-130; 1.: 140; extra: 150; superra: 160.
Landarak (zientoa): tipula, 250; tipula gorria, porrua, 300; azelga, letxua, 400; udaberriko aza, 400-500.
Barazkiak: atxikoria, azelga, espinaka, zainhoria, borraja, 50-75 xorta (x.); aza, 60-100 bakoitza (b.); azalora, 75-200 b.; babarruna, 700-1.000 k.; baratxuria, 75-100; baba txikia, 150-250 k.; eskarola, 50-120 b.; kiwia, 150-250 k.; letxua, 50-80 b.; patata,

50-60 k.; porrua, 75-200 x.
Kanpoko produktuak:
frutak (kiloa): anana, 250-290; banana, 175-225; kiwia, 100-200; laranja, 70-130; limoia, 125-150; mandarina, 150-200; sagra, 100-150; udara, 175-200.
Barazkiak: azalora, 150-200 b.; baba, 225-290 k.; herburiua, 200-225 k.; ilarra, 400 k.; kardoa, 300-350 b.; leka, 490-550; patata, 40-45 k.; piper gorria, 250-300; piper berdea, 300-350; tomatea, 200-250 k.
Arrainak (kiloa): amorraina, 650; antxoa, 850; antxoilu, 1.450; bakailaua, 1.300; itsasoilarr, 1.650; izokina, 1.300; kalamarra, 1.350; kariokita, 1.150; mediana, 2.600; mihiarraina, 1.450; muxarra, 950; perlita, 590; sardi+a, 610; txipiroia, 1.450; txitxardinak, 19.000; txitxarroa, 650-890; zapoa, 1.130-1.520.

Ana Irastorza

Nolako Etxea amesten duzu?



ETXEBITZA UNIFAMILIARREN BI PROIEKTU HASTERA GOAZ GOIERRI BAILARAN

⇒SAR ZAITEZ HASIERATIK GUREKIN

- Zure etxebizitza diseinatzeko
- Pisu bat baino merkeago aterako zaizu

CONSTRUCCIONES **ZALDIBI** ERAIKUNTZA

ZALDIBIA Tfonoak: 88 64 35 - 16 00 89 Faxa: 88 93 07

Debaldeko iragarkiak

Lana

□ Zure inprenta lanak egingo ditugu GOIERRITARRAn: kartelak, inprimakiak, festa-programak, buzoneatzeko inprimakiak, eta horrelako mota guztietako lanak. Dei 889612 telefonora lasai asko.

□ Inprimagailu laserren toner ontzi hutsak ez itzazu bota agortu ondoren. Ingu-rugiroa zain ezazu. Dei 651235 tfnora eta berehala jasoko dizkizugu.

Etxebizitzak

□ Pisua salgai Ordiziako Kale Berrian, 7.-4.esk. Tfnoa.:888618

Opariak

□ GOIERRITARRAren ale atzeratuak eskura ditzakete horren interesa dutenek: herrietako Udal kultur batzordeetakoek, kultur elkarteek, eskolek, liburutegiek eta edozein partikularrek. Dei 889612ra eta esai-guzu zeintzuk falta dituzun.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20


Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

Egutegiak

Kultur Ekintzak Beasainen

Urtarrilak 15: Zinea: "Bi hiritako gertakizunak" filmaren proiektzioa Murumendi Ikastetxean, 16,30etan. **16:** "Banpiro ehiztaria", La Salle-San Jose ikastetxean, 16,30etan. **22:** "Oliver Twist", Murumendin, 16,30etan. **23:** "Rio Bravo", La Sallen, 16,30etan. **Erakusketa:** Leon Alemanen argazki erakusketaren amaiera. **28:**



Erakusketa: Kultur Saila ordezkaturako duen anagrama egitearen prozesua erakusten duen erakusketaren inaugurazioa (lanegunetan, 18,30etatik 20,30etara; jaiegunetan, 12etatik 14etara eta 18,30etatik

20,30etara). Jaione Berasategiren erakusketaren amaiera Aterpe Tabernan. **29: Zinea:** "Nicholas Nickleby" filmaren proiektzioa Murumendin, 16,30etan. Aterpe tabernan 29tik otsailaren 18ra izango den Javi Herreroren erakusketaren inaugurazioa.

Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

Urtarrilak 17: Laurnaga; **18:** Cuesta; **19:** Arriola; **20:** Urbizu; **21:** Atorrasagasti; **22-23:** Urbizu; **24:** Azpilikueta; **25:** Jauregi; **26:** Laurnaga; **27:** Cuesta; **28:** Arriola; **29-30:** Atorrasagasti; **31:** Urbizu.

Ordiziako Herri Antzokia

Urtarrilak 16: "El Barón Munchausen", 4,45; "La tapadera", 7,30-10,15; **17:** "La tapadera", 7,30; **21:** "La Fuerza de Uno", 10,15;

22: "Sol naciente", 7,30-10,15; **23:** "La Fuerza de Uno", 4,45; "Sol naciente", 7,30-10,15; **24:** "Sol naciente", 7,30.

Zegama: Ikusentzuzkoak

Urtarrilaren 20an, 20,00etan, Zegamako Kultur Etxean, "Aitzkorri mendilerroa neguan" ikus-terko aukera. Hain gertuko eta geurea dugun, baina eraberean gutariko askorentzat hain ezezaguna den Aitzkorriko txokoak erakusten dizkigu 32 minututako ikusentzutezkoak. Egileak: Batis Goikoetxea eta Migel Anjel Otsoa de Alda.

Ordiziako Mendizaleak

Urtarrilak 16: Altzagarate-Gaintza Ordizia; **23:** Larraitz-Pikuta-Ordizia; **30:** Billabona-Lasarte (Kross).

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA
Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN

albisu

KRISTALDEGIA

Ordiziako Industrialdea - Pabellón. 40
Tel. y Fax: 88 71 58
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

gaur

express
mezulariak

- Hiri barruko zerbitzuak
- Nazionala 10 ordu
- Nazioarteko zerbitzuak
- 3.500 kg arteko kamioi zerbitzuak

Beasain: 88 89 38 Tolosa: 65 19 96 Donostia: 47 24 38



Goierriko Objetore Taldea

Intsumisioak E.H.-an duen arrakasta berezia azaltzeko arrazoiak ugariak eta oso desberdinak dira

Ia egunero agertzen zaigu komunikabideetan, epaitegietan, kartzeletan, aldizkarietan eta batez ere gure herrietako kaleetan. Hala ere, ziur batek baino gehiagok bere buruari galde-tuko diola ea zer arraio ote den intsumisioaren mobida hori. Artikulu honen bukaraino iristen den irakurle sufrituari zalantza astun hori kendu nahi genioke, beste galdera batzuentzat tokirik izan dezan behintzat.

Urte batzuk igaro dira antimilitarismoaz eta soldaduskara joan beharraz kezkatutiko goierritar gazte batzuk Ordizian elkartzen hasi ginetik. Goierriko Objetore Taldea, beste hamaika taldetxo herritar bezala, ordurarte hiztegienezako ere ezezaguna zen "hitz majiko"aren eraginpean sortu zen: *Intsumisioa*. 1989ko egun haietan, *militarismoa*, *ejerzitoak*, *kontzientzi eragozpena*, *giza baloreak* bezalako kontzeptuei buruzko eztabaiden artean finkatzen joan ziren giza mugimendu anitz eta zabal honen printzipio nagusiak:

Militarismoari kritika

Bultzatzen dituen balore etiko negatiboak (gizartean isladatzen direnak). Ejerzitoaren sarraskiak eta miseriak munduan zehar: Golkoko gerra, Bosnia, Somalia, Mexiko... guztiak ere gizatasunaren izenean. Gizartearen kontrola eta boterearekiko menpekotasuna, Espainiaren "unidad nacional" delakoa kasu. OTAN bezalako egitura militar ahaltsuak, herrialde aberats eta pobreen arteko diferentziak mantentzeko. Gastu militarrek...

Azken hauen inguruko datuak hortzikarak sortzeko modukoak dira: 93.ean, Espainiako aurrekontu militarra

Goierriin ere, militarismoa- ren aurka (I)

1'3 bilioi pezetakoa izan zen (3.560 milioi pzt. eguneko) eta 94.ean jeitsiko ez den aurrekontu bakarretakoa izango da. Ez genuke ahaztu behar ere Euskal Herrian bertan ditugula armagintzan eta ejerzitoarentzako zeharkako lanetan diharduten enpresa nagusitako batzuk (urrutira joan gabe CAF-ek berak Defentsa Ministeritzatik 639 milioi jasotitu 91-92 urteetan, "Marinako Infanteriaren ibilgai-luen mantenuagatik").

Derrigorrezko soldadutza

Arestian ikusi bezala, militarismoaren besoak oso luzeak izanik eraginak gizarteko arlo guztietara zabaltzen badira ere, dudarik ez dago soldaduska dela gizabanako bakoitzari bere azalean min gehien egiten dion zauria, norberaren askatasuna zapalduz injustizian oinarritutako makina honen partaide izatera behartzen duelako. Bertan egon direnen testigantza entzutea bezalakorik ez dago soldaduskaren absurduaz jabetzeko.

Intsumisioak E.H.-an duen arrakasta berezia azaltzeko arrazoiak ugariak eta oso desberdinak badira ere, aipagarria da ikustea nola aspaldidanik herri honek espainiar armadan parte hartzeari muzin egin dion. Salbu izan ginen 1876. urtean azken Foruak galtzearen ondorioz "kintantan" parte hartzera behartuak

izan arte, istilu ugariren artean halere. Harrez gero nabarmenki azaldu zen herri honen borondate bakezalea, batez ere gerrate garaian. Eta ez ziren samurrak izan jarrera horren ondorioak. Horrela, I Gerrate Mundialean 17.000 ipar-euskaldunek ihes egin edo herbesteratuak izan ziren frantses ejerzitoan parte ez hartzeagatik; era berean, 1920.ean Marokoko Gerratean Ameriketara aldegin zuen euskaldun askok, gehienak arrazoi beragatik. Bestalde, gaur arte zenbat eta zenbat mila lagun izan ote dira dirua ordainduz edo edozein gaisotasun argudiatuz koartelekako ateetatik urrun mantentzen saiatu direnak?

Kontzientzi Eragozpena-OZZ

84.ean onartutako Kontzientzi Eragozpenerako Legearekin (LOC), PSOEk soldaduskaren porrot izugarria estaltzeko lehen ahalegina egiten du, Ordezko Zerbitzu Zibila (OZZ-PSS) baten bidez soldaduskarekiko kritikak eta kritikoak bideratu eta isildu asmoz. Zerbitzu honen filosofia mugatua eta zigortzailea hasieratik ikusten da, objetore bezala onartua izateko zure arrazoiak sasiepaitegi (CNOE) baten aurrean azaldu behar dituzun momentutik, baliozkoak diren ala ez berak erabakitzeko. Hortik aurrerakoak: iraupen luzeagoa, koartelekako arautegi berdintsua, erakunde desberdinetako eskulan dohainekoa (alor horretako profesionalen lanpostuak murriztuz), langileen oinarritzko eskubideen deuseztapena (sindikatzeko, grebarako, lan-aseguroa), lan horietako prestakuntza falta, eta abar. Zaku bereko sagar ustelak baino ez dira.

(Jarrantuko du)

Besteek esana

Goierritar bertsolariak
Txapelketatik kanpo

“Nik ez nuen askorik espero. Semifinaletara pasako ote nintzen ala ez zen nire zalantza. Egin dudanarekin gustora geratu naiz”. (...) “Muruaren kasua ikusi besterik ez dago. Aurreneko saioan begira noraino igo zen. Bigarrean behera jeitsi eta hirugarrean pixkabat igo zen, baina ezin iritsi. Regularitatea mantentzea ezinbestekoa da”.

Xabier Zeberio

“Nik esan behar dut Xabierrek txapelketa ona egin duela eta, gainera, bere estiloa konfirmatu duela”. (...) “Niri dagokidanez, aurreko finalera joan nintzen, baina aurten garbi ikusten nuen finalera joateko izugarritzko borroka zegoela. Lehendik geundenak geunden alde batetik eta atzetik etorri diren gazteak bestetik”. (...)

Mikel Mendizabal

(Itsasondoko “Kantilla-pe”, 45. zenb.)

Inkesta

Gabon ondoren, erregimena?



Mikel Arizmendi
Lazkaotarra, 19 urte
Ikaslea

Ezta pentsatu ere! Jan bai, jaten dut, baina gozorik gustatzen ez zaidanez... Gainera juerga eginda jateko gogo handirik ez da izaten. Ez dut inoiz erregimenik egin, beharrezkoa iruditu ez zaidalako. Egia esan, oraindik linean nagoela uste dut.



Mikel Zabala
Beasaindarra, 23 urte
Udaltzaina

Bai, beharko! Eguberri hauetan gehiegi jan dudala uste dut. Asko jateaz gain ez dut kirolik egin eta normalean erregimenik ez, baina kirol asko egiten dut nagoenean mantentzeko. Egun hauetan behar baino gehiago jaten dugula iruditzen zait.



Yolanda Sanchez
Lazkaotarra, 27 urte
Dendaria

Ez dut erregimenik egingo. Eguberri hauetan, beti bezala, ondo jan dudala iruditzen zaidan arren, ez dut beharrik ikusten. Ez dut inoiz erregimenik egin eta momentuz behintzat, ez naiz horrelakoen zalea.

Giro jator eta atsegina



BASAKANA
ITUURRIOZ 11
BEASAIN

Sagardotegia



aulia
Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 40 57 Tfona: 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**
Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN



**KIRKIL
PUB**
ORDIZIA
Tfona: 88500

Goierriko flaxak

BBEASAIN. Iazko azaroaren 22an Aralargo San Migelen galdu zen Anjel Jesus Arin Fernandez beasaindar mendizalearen gorpu hila erreskatatu berri du Ertzaintzak, hiru mendizalek aurkitu eta gero Ataungo Arratetako Olasoro inguruan. Gogoratu beste idiazabaldar mendizale bat oraindik koma-egoeran dagoela orain hilda agertu den honen bila zebilela istripu bat izan ondorioz.

Beti izan da Beasain atzerritarrak bere baitan hartzearen zale eta aldeko, CAF dela eta ez dela. Oraintxe bi injinari mexikar ibili behar dute alderdiotatik lanean, adibidez; Mexikoko metroa egiten hasi behar dutela eta hemengo langileak ere ba omen dira hara joateko asmotan. Beasainen egindako bi pisutako trena Donostiaraino doala ikusi duen jenderik bada, bestalde.

Aizgorri Mendizale Elkartek deialdi bat luzatzen die bertako bazkide izan nahi luketenei: bertaratu eta apunta daitezela, alegia. Mendi-federatu karneta jasotzeko epea hilak 20a da, bestalde. Interesatuak azaldu bitez astelehenetik ostegunera, 19,00etatik 20etara.

OORMAIZTEGI. Juan Karlos Leturia Ormaiztegiko alkateak Goardia Zibilaren kontrol batean tratu txarrak jasan zituela eta salaketa bat jarri zuen epaitegian. EAJren goi-karguekin batera urtarrikak 4ean emandako prentsaurrekoan, aurreko astean gertatu zitzaionaren berri eman zuen. Arantzazuko baraualdiaren amaiera zela eta Goardia Zibilak Beasaingo

Salbatore auzoan kontrola jarrita zuen. Leturiak azaldu zuenez, kontrollean geldirik zegoen ormaiztegiar baten egoeraz galdeztzean, eta alkate gisa identifikatu ondoren, goardia zibiletako batek kolpatu zuen aurrepegiaren eta ondoren kolpeak eman zizkioten gorputz osoan lurrera bota arte. Armarekin apuntatuta eduki zuten paretaren kontra ordu laurdez, gainera.

ARALAR. Tolosako "Gal-tzaundi" aldizkarian eginiko elkarrizketa batean EHNEK berriki zioenez, "Aralargo Parke Naturalaren proiektua ez bada konkretatzen nekazari eta Administrazioaren arteko tirabira sor daiten". Jaurlaritzak Enirio-Aralar naturagunea parke natural bihurtzeko proiektua du. Proiektua baserritarren lurretatik pasatzen da, eta horrek mesfiantza batzuk sortzen ditu. Orain jendea asko badabil Aralarren, parkea eratuak ez da gutxituko jendetza eta lurra desgasteak izango lituzke.

IDIAZABAL. Idiazabalgo Gaztak notizi izaten segitzen du. Idia-



Juan Karlos Leturia, Joseba Egibarrekin prentsaurrekoan

zabal Ardi Gaztaren Jatorri Izenerako Kontseilu Arautzaileak urriaren erdialdean sari bat irabazi zuen, Nazioarteko Gastronomia Akademiak emanda. 52 gazta dastatu ziren eta aurreneko geratu zen Idiazabalgoa. Idiazabal-Urbasa gazten arteko fusioa ere laister burutuko omen da. Honekin lotuta azkenik, Idiazabalgo Udala ere arduratzen hasia da, eta bi herritar kontratatu ditu 6 hilabeterako Idiazabalgo Gaztaren alde lan egiteko.

Denbora askorik ez zaio geratuko edozeini Idiazabalgo lehengo telefono bat bazuen deitu hara eta berria zein den jakiteko. Idiazabalen telefono zenbaki asko aldatu dira. Ataunen ere aldatzekotan omen dira. Eragozpenak izango dira...

Publizitate modulo hau
6.000 pzta. kostako zaizu
10 edo gehiagotan eginda **5.000 pzta.**

GOIERRITARRA ☎ 88 96 12

LEINEA



TABERNA

Ba al dakizu...?



SEGURA. Segurako Aterpe-
txea itxi zenez geroztik, biharko egu-
nean zein erabilera emango ote zaion
eta makina bat espekulazio hasi dira.
Drogazale-ohientzako ote, agurentzako?
Ez dirudi. Litekeena da, ordea, esaten
denez, umeen udaleku gisa jar-
tzea. Zenbait ihardunaldi egiteko ere
aproposa da. Dagoeneko egin da baka-
rren bat.

ORDIZIA. Euskara Talde bat
sortzeko "minetan" dabilta zenbait
euskaltzale ordiziar. 25-30 lagun bildu
ziren aurreko urte-amaieran eta bile-
rako politena gazte-jende dexente bil-
tzea izan zen. Sortzeko adostasun bat
bada dagoeneko eta taldearen izena,
berriz, aidean dago, estatutuekin batera
etorriko da, bazkideek erabakitze-
tan. Batzorde eragilea sortu da eta 6-8
lagun daude hor: Aitor Asurmendi,
Joxe Mari Barandiaran, Ramon
Amundarain, Ana Amundarain, Santos
Garmendia, Andoni Eskisabel... Orain,

talde eragilearen eginkizuna beste eus-
kara taldeen estatutu, antolaketa eta
ihardueren berri jasotzea litzateke. Se-
riotasun batekin hasi dira eta jende
gehiagoren falta somatzen dute. Ahal
den zabalena egin nahi dute taldea.
Hurrengo bilerak segidan egiteko as-
moa dute.

Bertako tabernen erantzunen artean,
Kilometroak-93i dirulaguntza gehien
eman diona Ordiziako Gaztetxearena
izan omen da, askogatik gainera:
200.000 pzta. Horra hor berri positi-
boa.

OLABERRIA. Azken osoko
bilkuran, bere aurrekontuaren %0,7 he-
rrialde behartsuei zuzentzea erabaki
zuen Olaberriko Udalak. Dirulagun-
tzak aurtengorako dira eta alor horretan
lan egiten duten zenbait erakunderen
bidez iritsiko da herri behartsuetara. El
Salvador-erako 100.000 pzta.; Pa-
rahao-rako 250.000; Minsu-rako

250.000; SOS Balcanes-i 300.000; As-
kapenari 100.000; Cubarako 125.000
eta Brigada Internazionalistentzat
125.000a.

ITSASONDO. Udalerrian dau-
den tximistorratz erradioaktibo guztien
berri zehatz-mehatz ematea erabaki
zuen azken osoko bilkuran Itsasondo-
ko Udalak. Bai eta ahalik eta lasterren
zerrenda hori Enresa-ri bidaltzea ere,
tximistorratz horiek lehenbaitlehen
kentzeko eskatuz.

GABIRIA. Gabino Murua ko-
rresponentsalak ohartarazten digunez,
urtarrilean iñausketarako garaira hel-
duak gara. Inor gutxi izango da Gabi-
rian fruta-arbolarik ez duenik eta lan
hau ondo egiteak batzuetan zailtasunak
dakartza. Zenbaitek fruta-arbolak il-
beheran iñausuten baditu ere, beste ba-
tzuek eguraldi ona eta astia dutenean
egiten dute. Lehenagokoen esanetan,
hosto puntaduna duten arbolak (pa-
goa...) ilberrian iñausi behar omen dira
eta ostu puntta borobila dutenak (hari-
tza...) ilbeheran.

ATAUN. Joxe Migel Baran-
diaranen heriotzaren 2. urtemuga zela
eta "JM Barandiaran Murkondo" Kul-
tur Elkartekoek beraiek antolaturiko
ekitaldien balorapen guztiz positiboa
egin berri dute. Beren hasierako as-
moak bete bide dituzte eta ekitaldiz be-
teriko egitaraua ondo atera da, bai ar-
gazki erakusketa, bai antolatutako hit-
zaldiak eta baita herriko txoko bere-
ziak ezagutzeko egin zuten ibilaldia.
Ipuien lehiaketara 80 idazlan aurkeztu
ziren eta Irati Arratibel, Haritz Baran-
diaran, Andoni Munduate eta Aitziber
Munduateren ipuiak jo ziren hoberen-
tzat.

Zubibi 2
RESTAURANTE

Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

GOZOGINTZA
PAGOSA
OKINDEGIA

Tfona: 885500

ORDIZIA

**ALTZAGARATE
JATETXEA**

■ Leku aproposa bataio, jaunartze,
eztaiak, e.a. ospatzeko
■ Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Tfona

ALTZAGA

URTERO HAINBAT ELKARTASUNEZKO BRIGADA ANTOLATZEN DITU

Askapenarekin mundua ezagutuz

Euskaldunak beti izan du Ameriketarako joera, lehenik "deskubritzera", ondoren eguneroko ogiaren bila eta gaur egun turista moduan ez ezik Askapenarekin joan daiteke elkartasun bidaietan.

Azkeneko urtean Irlanda, Palestina, Ekuador, El Salvador, Kuba, Mejiko eta Guatemalara antolatu ditu Askapenak elkartasun brigadak. Hala ere hasi, 1980 inguruan hasi ziren, Nikaraguara, lehen euskal brigadak. Askapenak berriz, 1987an sortu zenetik burutzen ditu. Honetaz hitz egin dugu Bittor Merino Askapenako kidea, Rosa Goitia eta Gorka Garmendia, Ekuadorren eta Irlandan brigadista izan direnekin.

Bittorrek dioenez, Brigaden helburuak hiru lirateke: "Batetik beste herriak ezagutzea, bai politikoki, bai kulturalki, baita geografikoki ere. Bestalde, joaten garen herrietan Euskal Herriaren egoera ezagutaraztea, gure edo mugimenduaren ikuspegitik, bai herriari baita ezkertiar munduan mugitzen diren erakundeei ere". Hirugarren helburua laguntza ematea dute, materiala baino gehiago fisikoa. "Maila batean gezurra izango zen gu haruntza erakustera eta laguntzera joaten garela esatea; Kubara lanera joaten da edo Ekuadorrera laguntza txiki batzuk eramanez, Irlandara berriz ikastera joaten da. Azken finean,



Brigadistak eta gia Ekuadorren 93ko abuztuaren

denetara ere, ikastera joaten gara."

Brigadisten lana ez da hemen bukatzen, itzulitakoan egon diren herrietako egoera eta bizitako esperientziak zabalitzen dituzte, hitzaldiak eman eta ekintzetan parte hartuz.

Iaz esperientzi berri bat hasi zuten, Irlandako brigada bat etorri zen Euskal Herrira eta aurtun ere errepikatzeke asmoa dute. Italiako jendea ere hona etortzeko prestatzen dabilela digute.

Ekuadorreko berri

Rosa Goitia ordiziarrak aurretik ere bazuen Ekuador aldera joateko asmoa eta Irune, bere lagunak animatu zuen brigadista bezala joateko. Ez da horre-

taz damutzen, "ezta gutxiago ere!", horrelako herrialde bat ezagutzeko brigadatan joatea merezi duela dio. Ekuadorren hiru lekuetan egon ziren, lehenik oihanean, ondoren mendi aldean eta azkenik kostan, baina hemen turista bezala gehiago.

Han, mugitzeko garaian, giza esku-bideen aldeko mugimenduko kide bat ibili zen beraiekin gia lanak egiten. Bertako indigenekin izan zituzten harreman guztiak. "Oihanean beraiekin bizi izan ginen astebetetz. Gu geunden bitartean ezkontza bat ospatu zenez lau egun festan egin genituen, baina gainontzeko egunetan bertako eguneroko bizitza ezagutu genuen. Beraiei hemengo berri ematea berriz, nahiko zaila izan zen, Europa non dagoen ere

Blues Brothers
BEASAIN

Erakusketa
 Sukaldeko tresnak

 Mariaratz, 4
 Tfonoa: 88 86 84
 BEASAIN

Modulo hau
3.000 pzta.
 kostako zaizu
 10 aldiz eginez gero
2.500 pzta.



Belfasten, aurreko brigadistek eginiko mural baten aurrean

ez bait dakite eta bigarren aldia besterik ez da brigada antolatzen dena."

Oihanera hegazkinez edo oinez bakarrik sartu daiteke, mendialdera iristea errazagoa denez, jende "zibilizatuagoa" dago. "Mendialdean kulturen arteko txokea handiagoa da. Nahiz eta 500 urte pasa, zapalduta sentitzen dira eta kanpotarreganako errezelo asko dute. Gringotzat hartzen zaituzte eta hesi hau, bertan genituen kontaktuei esker hautsi genuen." Dio Rosak, esperintzia positiboa izan zela gehituz.

Geroz eta urrutiago

Euskal Herrian modan dago oporrak pasatzera geroz eta urrutirago joatea, honetaz badute zer esana brigadistek:

"Bidaiatzeko modu asko dago, brigadistak denborarekin ikasi du beste herriak errespetatzen. Jende asko berriz, turista bezala, oso jarrera majoarekin joaten da, baina lagundu baino gehiago

Irlanda: brigadista European

Arraroa egiten da Europatik atera gabe brigadista izan daitekela entzutea. Zeren bila joan ote zen Gorka Garmendia ordiziarra Irlandara? "Bertako herria ongi ezagutu nahi nuen, hango borrokan ari den jendearekin hartu-emanak izan. Euskal Herriaren antzeko borroka daramate, gutxienezko eskubide batzuk lortzeko, askatasuna azken finean."

Belfasten astebete pasa zuten, ondoren Derry-n eta Donegal, hegoalde-

go kaltea egiten dute. Ez gara konturatzan ze min egin dezakegun gure jarrerarekin, detaile txikiekin, nahiz eta intentziorik ez izan. Gu aberatsak gara eta beraiek ez, hau kontutan izan behar dugu, beraien kultura eta bizimodua errespetatu beharra dago. Kalte egitekotan hobe da bi aldiz pentsatzea eta modu hortako bidaiak piskabat frenatzea."

ko herri txiki batean, egon ziren. Belfasten abuztuan festa handi bat egiten da eta oso aste intentsua pasa zuten festa eta bileren artean. "Bertako jendearen etxeetan egon ginen bizitzen eta lagun handiak egin genituen. Belfasten errepresio eta indarkeria handia dago, irlandarrak oso zapalduta daude eta hori izaeran nabari da; adibidez haurrak hemengoak baino gogorragoak dira, dirurik ez dago, beste era bate-takoak dira. Egoera oso gogorra da, langabezitik bizi dira. Honengaitik ez-kutu xamarrean bizi dira, baina aste horretan diren bezala azaltzen dira."

Ipar Irlandan tentsio handia bizi da, bertako bi komunitateak asko bereizten dira, ejerzitoa kalean dago, kuartelak eta polizia alde guzietan ageri dira. Gorkak egoera hau deskribatu nahi izan digu: "Gu han geundela Sinn Fein-eko zinegotzi baten semea hil zuten. Zapalkuntza handia dago, paramilitarren mehatxua etengabea da, han abertzale izate hutsak beraien objektibo bihurtzen zaitu. Militarrek kalean maniobrak egiten ikustera ohitzen zara. Belfasten manifestazio antzeko martxa handi bat egiten da. Guk gure elkartasuna adierazi genien eta hurrengo egunean, hau zela eta egunkari bateko lehen orrian gu, Sinn Fein, ETA, IRA, traktore-bonbak eta denak nahasian azaldu ziren. Beldurra ere pasa genuen honen ondorioz."

Berriz ere joateko gogoarekin itzuli dira, hango lagunak ikustera, baina ez brigadista bezala, kopuru finkoak direnez jende berriari lekua egin behar bait zaio.

⇒ Mikel Albisu

Iragarki hau 3.500 txokotan sartu da, zurea ere sartuko da, GOIERRITARRA erabiliz gero.

Publizitate modulo hau **9.000 pzta.** kostako zaizu, 10 aldiz eginez gero, **7.500 pzta.**

Enpleguarekiko solidaritateko plana

Denok dakigun bezala, erakunde publikoetatik lan kontratazioarako laguntza programa batzuk daude: "Fomento de Empleo", "Plan de solidaridad con el empleo" direlakoak, etab. Beraz, aukera hori edukita eta bi funtzio betetzearen, langabeziari ahal den neurrian erantzun bat ematea eta Goierri bailaran dauden beharrak betetzea, eskaera bat egin genuen Eusko Jaurlaritzako Lan Sailera, Solidaritateko plan horren markoan.

Onarpena jaso dugu hogeitamar pertsona kontratatzeko. Zortzi pintore, hogeit hamar eta bi enkargatu. Onarpen hori bai laboralki eta bai finantziaroki gauzatzen da. Laboralki, pertsona hauek jornada erdian lan egingo lukete zenbait udalerrietan (Zerain, Arama,


Itsasondo, Ordizia, Ataun, Beasain, Segura, Lazkao eta Zegaman), Udaltxe bakoitzaren proiektuak aurrera ateratzeko; beste jornada erdia formazioan emango dute langileok. Formazioa hiru ataletan banatuta dago: pintura eta loragintza ikastaroa, orientazio eta motibazio ikastaroa eta lana bilatzeko teknika ikastaroa. Hau dena Ordiziako Lanbide Hastapeneko Tailerretan burutuko da.

Finantziario aldetik lortutako dirua: 32.555.604 pzta. lan kontratazioarako eta 6.103.000 pzta. formazioarako. Beraz, lan kontratazioaren subentzioa %75koa da eta formazioak osoa. Orduan, interesaturik dauden Udalek pertsona bakoitzeko %25a jarri beharko dute.

Selekzioaren prozesuan, berriz, INEMek preselekzioa egingo du Dekretuak agintzen duenaren arabera. Langabezian dagoen jendea: %60a luzaroko langabezia eta lehenengo enplegua; %40a, besterik. Goieki, Goierriko Garapen Agentziak, selekzioa egingo du, horretarako mahai bat osatuko dutela interesaturik dauden udalleteetako ordezkari banak. Aukeraketa gizarte-irizpide batzuen arabera egin da. Enpleguko mahaia sortu da Diputazio, Eusko Jaurlaritza eta Goiekiren artean ratifikazioa emateko.

Nikolas Errasti, Goieki, S.A.-ren izenean

Arrastoa



Iñaki Olano
beasaindarra

Euskal Telebistako albiste zerbitzuetan dabil Iñaki Olano, duela 27 urte jaiotako beasaindarra. Duela 2 urte pasatxo hasi zen ETBko albiste zerbitzuan lan egiten. Estrinako kazetari lanetan berriz, 7 urte izango dira ia "Hemen"ekin bateratsu jaiotako "Eguna" egunkari/astekari moduko hartan, praktikak egiten hasitakoan. Artean Leioako EHUz zebilen Informazio Zientziak ikasten.

"Gerora 'Deia'-n ere 3 urtez aritua nauzue Gasteizko delegazioan. Kazetari gisa hasi aurretik ordea, ETBrako filme eta telebistako bikoizketan, eta batipat itzulpen/egokitze lanetan urte pare bat eman nuen, Galdakaon. Bolada polita huraxe! Aurkezle lanetan nabil orain, eguerdiko 'Gaur Egun' albiste saioan. Zer egin nahiko nukeen? Halazankoa, galdera ederra;

amets goxoa!: zinema-bideo sormenak erakartzen nau erabat, baita munduan zehar bidaiatzeak ere", dio. Egunen batean agian...

Goierrirekiko harremanik gordetzen duen galdetuta, *"hilean behin edo bitan etxerako asteburuko bidaiak, eta kitto. Garai bateko lagunak nondik nora dabiltzan ere ez dakit, atera kontuak!"*. Bestalde, nekez bilatzen du afizio guztietarako astirik: bidaiak, zinea, musika, idaztea, natura, bizikleta,... *"Hoietatik hedonistenak, alferrontzienak ditut erosoan praktikatzen"*.

Despeditzerakoan, *"Tira ba... Eutsi goiari zuen GOIERRITARRAekin. Euskal Herri osora hedatutako Herrialdizkari sare horixe, hizkuntzaren mesedetan bai 'inbentu' ederra!"*, erdugarri iritzi dio. Zorionak eta hurrena arte bere partetik irakurle!

Sagardotegi-sasoian gaude

Gure baserrietako ohitura zaharretako bat omen da sagardogintza, gurasoetatik seme-alabetara pasa dena, idatzitako arrasto haundirik utzi ez badu ere. Legorretan, orain dela 16 bat urte ireki zen Aulia sagardotegia, betidanik egin izan badute ere sagardoa. Sagardoa egiteko era ezer gutxi aldatu dela dio bertako den Juan Inazio Etxeberriak. *"Lehen baino garbiketa gehiago. Bestela, nahasketa berdintsu xamarra"*.

Asturias, Galizia eta Euskal Herriko sagarrarekin dabilta, azken urte hauetan. *"Aurten, E.H.-koa bastante diagu. Orain hemen klase askotako sagarrak zeudek eta hemendik urte batzuk barru sagar gehiago egongo duk. Baina, nahastea duk hoberena: zenbat eta gehiago, orduan eta hobe. Beraz, kanpora jo beharra zeukeagu"*, esan digu. Sagardogileak berak ere ez daki upel bakoitzean zer nolako sagardo-mota duen. Dastatzerakoan soilik jakingo du, nahiz eta udaberri-uda partean eginiko eguraldiarengatik zerbait igarri dezakeen.

Geroz eta kupel herdoilezin gehiago ikusten dira, efektu ez oso ona eragin ez. *"Jendea gustora zebilek, emaitza onak ematen omen dizkik. Erosteko asmoa badiat, baina egurrarekin estaliko dudan etzekiat. 'Inoxidabletan', kupel batetik bestera alde gutxi zegok. Hoztu eta berotu, azkarrago egiten duk. Garbitzeko ere errazagoa duk. Hala ere,*



egurraren aldekoa nauk", aitortu du. Bestalde, gazteok gustora joaten gara sagardotegietara. *"Gazteak gogo haundia zeukak sagardotegirako. Gazte-jendea lanean egongo bahu, beldurgarria izango huke"*.

Gazteak boteilatik ere edaten du, ordea. Garrantzitsua da, iaz 25.000 litro inguru edan ziren txotxetik eta 110.000 bat litro izan ziren enboteilatutakoak Aulian. Aurtengoan, sarrerako prezioa besterik ez dute igo, 550 pezetetara. Eta krisixa ez dutela nabaritu dio Etxebe-

riak. "Jendea betiko moduan zebilek. Urte mordoxxka bat bazemazkiagu krixixen eta jendetza aldetik mantentzea ez duk gutxi".

Makina bat sari irabazi ditu Aulia azken urteotan. Zortzarekin dabilta. Iazkoan, Tolosan 1. saria eskuratu zuten eta Azpeitian 2. geratu ziren, 3. arekin batera. Lehen ere irabazia zuten Tolosakoa eta baita ere Beasaingo beste hiru urtetan. Bertako bezeroek badakite ondo asko zer aurkituko duten Juan Inazioren eskuetan dagoen sagardotegian. Eta, dagoeneko, sagardo gozoa probatu dezakete guztiek.

San Silbestreko 5. Kross Herrikoa

Honako hauek ditugu irabazleak: 5 urte bitarte, neskatan: Amaia Iturrioz; mutikoetan: Kepa Jauregi. 6-7 eta 8 urte bitarte, neskatan: Agurne Sanchez; mutikoetan: Sabin Fernandez. 9-10 eta 11 urte bitarte, neskatan: Nagore Garmendia; mutikoetan: Gaizka Arratibel. 12-13 eta 14 urte bitarte, mutikoetan: Borja Urretabizkaia. 15 urtetik gorakoetan, emakumezkoetan: Edurne Arakistain; gizonezkoetan: Fernando Oliveira.

Xabier Glez. Ezama

KALITATEZKO ELIKADURA, OSASUNAREN OINARRIA



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

***Baserritar: egin erakargarri zure produktua.**

***Erosle: bertako produktuan dago zure aukera.**



NEKAZALTURISMOA

“3. munduari” laguntzak

GABONAK pasa ditugu, eta Gabonekin batera etortzen den giro ederra. Kaleak “jantzirik” agertu zaizkigu aurretan. Bai eta Ordizian ere. Aurreko urtean, krisia zela eta bertako Udalak diru gehiegirik ez zegoela adierazi zuen; kaleak “bilutsik” geratu ziren, argi eta beste gabe. Neurriak keja ugari sortu zituen, Ordizia izan baitzen, beste asko ez bezala, motelago geratu zena. Oraingokoan, berriz, irudi hori konpondu dela dirudi: Udala eta merkataria ados jarri dira, batak argindarra ordaindu eta besteek argiak ipini dituzte.

ESKIA. Festak pasa eta lanari ekin behar diogu. Dena den, negu-giroan gaude bete-betean eta atsedena ere har liteke. Dagoeneko gure hurbileko mendietan elurra azaldu da eta horrek esan nahi du neguko kirolak aprobetxa ditzazkeela gustoko dituenak. Eskia da gehien egiten eta bultzatzen den kirola eta Ordizian 15 eta 29 urte bitarteko gazteek aukera ona dute elurretan egiteko. Aukera Udaletxeko Gazte Bulegoak eskaintzen du, Foru Aldundiaren bitartez. Astun, Candanchun, Formigal eta Pal-en egun batzuk pasatzeko izena ematerik badago. Irteerak, egun bate-

koak, asteburu edo aste guztirako izan daitezke. Aurtengo kanpaina apirilaren 24ean bukatzen denez, oraindik baduzu denbora disfrutatzeko. Informazioa: Eskualdeko Kirol Bulegoan (889545 tfnoa.) edo Gazteen Bulegoan (160743 tfnoa). Dei bidaia baino 10 egun lehenago. Bi orduko ikastaroa har dezakete egunero izena ematen dutenak.



3. MUNDUARI zuzendutako laguntza. Aspalditik dago frogatuta ordiziarrok ez gabela atzean gelditzen laguntza ematerako orduan. Txikia bada ere, aipagarria da Udalak 3. Mundurako zuzentzen duen laguntza, bere

aurrekontuaren zatia. Dena ez da bukatzen Udalak egiten duenarekin. Beste zenbait erakundek ere egiten dute lan gu baino okerrago daudenen alde. Urtero jartzen du, adibidez, tonbola mihiolaria Mojen komunitateak ordiziar zenbaiten laguntzaz, eta aurtengoan ere lortu du hori jartzea. Ateratzen den dirua Bolibia eta Ginea Ekuatorialera bidaliko da.

LAGUNTZAK ez dira horretan bukatzen. Parrokiko Batzordeak ere badu zereginik halamoduzko proiektuekin. Medikamentuen bilketa-kanpaina bat antolatu du honek, beharrezkoak diren lekuetara bidaltzekotan. Kondizio onetan eta epea pasatu gabeko medikamentuak nahi ditu komixioak, mina kentzeko analgesikoak, bitaminak eta antibiotikoak ere bai.

BUKATZEKO, San Silbestre korrika-probako irabazleen zerrenda. Gizezkoetan, 1.: Manu Hurtado (18.34); 2.: Jose J. Cuadrado (18.39); 3.: Etor Mendia (18.52). Emakumezkoetan, 1.: Gloria Guerrero; 2.: Marieli Martinez; 3.: Agurtzane Auzmendi.

✍️ Jesus M. Munduate eta J. A.

ITSASONDO

Ostatu berria herrian, “Izaskun”

Aspaldian erosi eta hartu zuen Fernando-enea etxea (garai bateko Sarasola mehatzetako nagusien etxea, bulegoak zituena-eta) “Nautiko” jatetxe-ko Peio Izuzkizak. Harritea etorri eta teiltua hondatu arte hor egon zen konpondu gabe. Ezin horrela utzi, bada, eta betekizunen bat emateagatik ostatu bat egitea okurritu zitzaion ostalariari.

Etxe dotorea kondiziotan jarri, baimen guztiak eskuratu eta ireki berria du, proba egitekotan. Alaba baten izena jarri dio: “Izaskun” aterpeari. Izan ere, gaur edo biharko ondorengoentzat ere izan baitliteke bizibide. Eskaera bat bazen, dioenez, eta bizimodua atera-

tzen laguntzeko balio dezakeelakoan jarri ditu 8 logela berri-berriak. Bakoitza bere bainu, aide akondizionatu eta berritasun guztiekin. Behean bere saloia, telebista, e.a. ditu.

Izuzkizaren filosofia beti izan da gauzak denen eskuera jartzea, bai otorduak eta baita, oraingoan, logelak. Horrela jardun du urte eta urteetan jatetxearekin, pasoko bezeroen artean (kamioizaleak, beajanteak,...) beti izan du merke eta onaren fama, makina bat urtebetetze, kinto-afari, komunio e.a. ospatzen dira bertan oraindik. Oraingoz, montadore eta langile-jendea etortzen zaio ostatura, “turistekin ez

dago, ez oraindik behintzat. Eta gero ere...”, dio Peiok. Janaria jatetxean eman eta bi pasutara logelak. Pentsio osoa merkeago, moduan jartzen du. Besteen aldean, kalitate/prezio erlazio ona ikusten dugu, erdi-prezioan.

Proba hau ondo aterako balitzaio, beste planta bat egin eta logela gehiago ipiniko lituzke. Taldeentzako eta etortzen den guztientzako jarriko luke jendea mogituko balitz. Lotoki gutxi bazen lehen Goierrin, honezkero eskaintza zabalagoa dugu. Edozein erreserba egiteko dei 880012 telefonora.

✍️ Mikel Aramendi

“Txertakadi” sagardotegia martxan

Urtarrilaren 14tik aurrera Zaldibiko Urtesabel auzoan sagardotegia izango da. Sagardotegi hau Bilore lantegitik 100 m.-tara dago. Joxe Martin Eskisabel eta bere emazte Arantxa Ugartemendia dira asmoa egi bihurtu dutenak. Txertakadi jarri diote izena, hain zuzen ere Urtesabel baserriko garai bateko baso baten izena gogoratuz.

Lekua ez da aldrebesa eta diseinu aldetik benetako sagardotegi baten itxura osoa du. Jadanik han daude prest 22.000 l. sagardo, zurezko kupeletan, ontzen. Aldi berean, garai modernoetako dagozkion erosotasun eta komodidade guztiak ditu berekin. 100 pertsonatik gora kabitzen dira, pagozko 12 mahai handitan eserita. Bitxikeria bat kontatzearen, kupel bat grua batetik zintzilik jarrita dago, dekorazio moduan, lokalari oraindik ere itxura bereziagoa emanez.

Sagardozale eta moko finekoek ez dute aukera faltarik izango. Makailau, txuleta, arkume eta baserriko oilaskoak izango ditu jangai hara hurbiltzen denak. Postretarako, berriz, menbriloa, intxaurrak eta ardi-gazta. Badago beste alternatibarik ere. Nahi izanez gero, bezeroek berek eraman litzakete janariak, han prestatzeko. Bestalde, 30en bat kotxerentzat aparkalekuak ere badauzka.

Kirolak jende dexente mugitzen du

Kultura Batzordearen txostenaren arabera, gero eta jende gehiagok egiten du kirola. Zaldibiak, azkeneko zen-




Iker Sukia atezaina Sevillan dago probak egiten. Argazkia: **Rufino Iraola**

tsuak dioenez, 1.544 bizilagun dauzka, hauetatik 152 eskolumeak direla. Edadeko jendearentzat antolaturiko gimnasia saioetan 30en bat pertsona dabil-tza. Momentu honetan aerobick ikastaro bat dago martxan eta, batekoz beste, egunean 20 bat lagun etortzen dira. Bestalde, 25 pertsona dira frontoirako ordua eskatuta daukatena, palan jokatzeko. Footing egiten ere jende asko ibiltzen da. Adib., Behobia-Donostia proban 5 gaztek hartu zuten parte. Zikloturismoan eta karreretan dabil-tzanak ere badira. Txirrindularitzari dagokionez, iaz Udalak atera zuen aldizkaria eta egin zen kultur-astea ez

daitezke aipatu gabe utzi.

Igeri egitera, berriz, Ordiziako Majorira joaten da zaldibitar asko. Daukan demografi tasarekin gure herriak, berak bakarrik, nekez izango du gerora ere denetarik egiteko moduko kirolde-girik. Beraz, zenbait gauzatan auzo-herriekin elkar hartu beharrean gaudela iruditzen zait, piszina kontuetan kasurako. Pilota Eskolak ere 26 mutiko entrenatzen ditu, eskola-mailan eta beste hainbat lehiaketatan parte hartuz. Besteak beste, Jauregi eta Sukia Gipuzkoako txapel-dun atera dira, klub-arte kirol lehiaketan. Beste kirol batzuetan ere badabil jendea (mahai-tenisa, futbola...), 50 neska-mutiko dabil-tza, eskolatik kanpo.

Udalak kirola bultzatzen jarraitu behar du, instalazioak ahalik eta egokien moldatzen saiatuz. Esate baterako, oraintxe estrenatu da gimnasio berria, Luberri etxepean. Lokal honetan, edadekoentzako gimnasiaz gain, dantza eta beste zenbait entsaio egin ahal izango da. Azkenik, iaz kirol-gaietan zenbat gastatu zen ere jartzen du txostenak: gimnasia ematen, 435.000 pzt.; udako ekintzetarako monitoreak eta materialeak, 675.000; frontoiko konponketak, 135.000; gimnasiarako lokal berria, 3.225.000; eskolarteko olimpiada, 6.000; pilota eta futbol eskolei dirulaguntzak, 445.000; txirrindularitza aldizkaria eta kultur-astea, 275.000; pilota eguna, 170.000.

 **Rufino Iraola**

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO:

Euskalerrria K.
ORDIZIA
Tifonua: 88 04 15

Pentsuak
Ongarriak
Lantresnak

Industrialdea
OLABERRIA
Tifonua: 16 07 07

Merkatarien kanpaina euskaraz

BI hilabete iraun zuten obra-lanen ondoren, Astigarreta auzoko S. Gregorio ermita berriztatua izan da joandako udazkenean. Konpontzaileak Beasaingo Oargi Kultur eta Kirol Elkarteko gazteak izan dira, Udalaren laguntzarekin batera. XVIII mendekoa den ermittaren konponketa-lanek 1.600.000 pzta.-ko kostua izan du.

BEASAINGO HBren berriemaileak zen "Gogor" aldizkariaren azken alea atera zen abenduan. 84.ean sortutako aldizkariak 32 ale eman ditu. Urte berriarekin aldizkari berri bat argitara emango omen dute.

BERTAKO "Ostadar" Dantza Taldeak helduei zuzendutako sueltoko dantza ikastaro bat antolatu berri du. Ikastaroa hilak 15etik aurrera emango da larunbatero 4'30etatik 6rak bitarte. Matrikulak Kultur Etxean.

SAN Silbestre korrika Proba arrakastaz ospatu zen iazko urtezahar egunean. Azken edizioan azken aurrekoan baino 25 lagun gehiagok parte hartu zuten. Guztira 134 korrikari ziren, 17 eta 74 urte bitartekoak. Emaitzak: Gizonetzkoetan, irabazle Antonio Serrano suertatu zen (26,31); 2.: Diego Garcia (26,37); 3.: Andres Rodriguez (27,09). Emakumezkoetan, berriz, 1. Natalia Azpiazu (31,28); 2.: Iurreko Amaia Insausti (33,16); 3.: Rosa Maria Luena (37,03). 25. urteurrenaren bidean doa




"Beti Bizi" Elkartek urtero antolatzen duen S. Silbestre proba.

ARRIARANGO presako lanak kasik amaituta daude, eta hainbat jende gerturatzen da bertara eskultura eta presa bera ikustera. Urez betetzen doa, aidanez.

MERKATARITZA eta euskara. Merkataritza arloan euskara sustatzeko kanpaina martxan da azken hilabeteotan. Udalak jarri du martxan ekimena Euskara Batzordearen eskutik. Kanpainaren helburuak, sektorean erabiltzen diren materialak euskaratzea eta dendariak (ahoz nola idatziz) dituzten harremanetan euskararen presentzia ugaritzea. Lehen pausua, sektore honetan euskarak bizi duen egoera ezagutu

eta aldi berean dendarien jarrera, iritzi eta proposamenak jasoaz eman zuten. Dagoeneko hainbat beasaindar merkatarik hitzarmen sinboliko bat sinatu eta beraien logotipoa ere aukeratu dute. "Hemen elkar ulertuko dugu" lemapean, triangelua aukeratu da logotipotzat. Hitzarmena sinatu duten dendetako ateetan ikusiko dugu triangelua. Noski, triangelua atean eramatea ez da nahikoa izango. Beren konpromezua bete beharko dute: betetzen ez duenen bat balego, triangelua kenduko litzaioke; euskara erabiltzen gehien saiatzen denari urrezko triangelua emango litzaioke.

 Nekane Altuna

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



Pintxoak
Ogitartekoak
Bazkariak
Afariak

880035

ORDIZI

Zure abisu eta oharrak eskertuko ditugu.

Norbaitek artikulu edo erreportaien bat idatzi nahi badu, bere herriko kronikatxoa, iritziren bat eman edo salaketaren bat egin, lagundu nahi baligu era batera edo bestera, gure helbidera bidali edo gurekin harremanetan jartzea besterik ez du.

GOIERRITARRA, 124 p. k.
ORDIZIA Tfona: 88 96 12



MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00

I-go "Elorri" Idazlan-sariketa

Azaroan Elorri Kultur Elkarteak eginiko I-go Idazlan sariketarako deialdiari erantzun ezin hobea eman dio herriko gaztediak. Guztira 27 idazlan aurkeztu dira sariketara eta partaidetza ere sail bakoitzean berdintsua da. Alegia, A sailean 8 idazlan aurkeztu dira; B sailean 9 lan eta D sailean 10 idazlan.


Aurten lehenbiziko aldiz izateko eta kontuan harturik herrikoentzat edota Herri Eskolan dabilzanentzat mugatua dela sariketa, oso interesgarria iruditu zaigu antolatzaileoi lehiakideen kopu-

rua. Partaide gehienak segurarrak izanik ere, aipatzekoa da bai Mutiloako eta bai Zeraingo ikasleek ere parte hartu dutela. Neskatuen partaidetza mutikoena baino ugariagoa izan da: 20 neska eta 7 mutiko.

Lan guztiak jaso ondoren, orain epai-mahaikoan eskutan daude idazlan guztiak; beraz, epaiaren zai egon besterik etzaigu gelditzen. Urtarrilaren bukaeran sariak banatzeko egingo den ekitaldi berezi batean jakitera emango dira irabazlearen izenak. Oraingoz sariak zenbatekoak diren aipatuko dugu

eta gero gerokoak. A sailean: 1. saria 15.000 pzta.; 2.a: 10.000; B sailean, 1.a: 10.000; 2.a: 5.000; D saila: 1.a: 5.000; 2.a: 3.000. Diploma izango dute guztiok eta partaide guztiok izango dute sariren bat, nahiz kasetak, liburuak, eta abar.

Laguntzaile lanetan aritu zaigun Segura Irratiak ere ipuinen bilduma eginenez grabaketa berezi bat egiteko asmoa agertu du. Elorrik mila esker eman nahi dizkie parte hartu duten guztiei.

 Rafael Gerriko

IDIAZABAL

XVI Herri Krossa

Gabonak igarota, urtero bezala inguruko lehen festak antolatzeari ekin diogu. San Blasetan ospatzen ditugu idiazabaldarrok hain entzunak diren jaiak eta lau egunen buruan hamaikaxo ekintza ezberdin izango ditugu gozagai. Urtarrilak 30, igandean ospatuko da 14. krossa, Idiazabalgo Kirol Elkarteak antolatuta. Idatzitxo honen bidez korrikazale guztiak gonbidatu nahi ditugu.

Goizeko 11etan hasita, era honetan izango dira lasterketak: -Neska Benjaminak, 500 m. -Mutil Benjaminak, 500 m. -Neska Alebinak, 1.000 m. -Mutil Alebinak, 1.100 m. -Neska Infantilak, 1.100 m. -Mutil Infantilak, 1.900 m.;

Eguerdiko 12etan, lasterketa bakarria izango da:

-Neska Kadeteak, 2 km. -Mutil kadeteak, 4 km. --Helduak (bai eta 40 eta 35 urte betetako beteranoak): -Gizonak, 10 km. Emakumeak, 4 km.

Korrikaldia bukatzen duten haur eta kadete guztiok, domiña jasoko dute. Helduek, berriz, diploma. Izena emateko epea, irteera baino ordu laurden bat lehenago amaituko da. Gurutze Go-

rriak bere laguntza eta zerbitzuak eskeiniko ditu Kross honetan. Antolatuzaileek ez dute bere gain hartuko gerta litezkeen istripuen erantzunik. Entrenatu eta zatoz gurekin "Izalgo" kaleetan barrena, korritzera nahiz korrikalariak animatzera.

Koskak jeitsi dituzte


Orain gainera, lehen askori hainbeste amorrutik ematen zuten errepideko koska horiei irtenbidea aurkitu zaie. Izan ere, gure herrian eta aspalditxo hasita kale nagusian berrikuntzak egin dira. Espaloiak zabaldu eta oinezkoarentzat bide eroso-eder bat ezarri da. Gidarienez errepide leun eta itxurazko bat eta herritarrontzat oro har kale nagusi dotorea berregin da. Bestalde farolak, zakkarrontziak eta beste gehitu zaizkio herriari. Zorioneko koska haiek bezala. Azken ikuiturako proiektuz kanpo zegoen ideia bat gauzatu baitzuten eta



Argazkia: Lurdes Urrestarazu

orduzkeron denon ahotan egon da aldeko edo aurkako hitzen bat.

Baten ustez abiadura jeisteko hobirik ez zegoen. Bestea, kotxez pasatzekoan gelditu beharrak sutan jartzen zuten, eta hurrengoak txirindulari probak egiterik ez zela egongo zioen. Azkenean behintzat, zenbait bilera eta eztabaiden ondoren, koskak jeistea erabaki zen eta halaxe egin ere. Orain lasai etor zintezkete herrira derrigorrez barrakatan montatu beharrik gabe.

 Aloña Galarraga

Organoa berriztatu behar dute

San Martingo elizako koruan dagoen organoa eraberritzeko erabakia hartua dago. Adituentzat altxor preziatua den organo honen berriztatzeak, ia bi urte iraungo du eta 22 milioi pezetako aurrekontua bere gain hartu du Diputazioak. De l'Om-Arrizabalaga orgueners entrepresa katalanak 92an organoari egindako azterketa sakonaren txostenean agertzen da zehatz-mehatz, orain beraiek egingo duten errestituzioa nolakoa izango den.

Juan Árin Dorronsoro apaiz ataundarrak, bere "Clero y Religiosos de Ataun" liburuan dionez, Oñatiko Lorenzo de Arrazola organogile maisua izan zen, 1760ko ekainaren 4ean hitza eman, eta agindutako epean organoa egin zuena. Organoan bertan agertzen den bezala, 1761ekoa da. Haizezko musika tresna bitxi honi etekinik atera izan ohi diote musikagile ospetsuek ere; hainbat kontzertu eskeintzeaz gain, diska bat behinik ere bada grabatua bere musikaz, duela urte batzuk. Aurki ekingo diote konpontze lanari, eta bitartean oraindik ere ohizko meza-tan entzuteko aukera bada. Azken urte hauetan hiru ere badira organo hau jo



San Martingo elizako organoa


ohi duten herritar gazteak, hirurak ere emakumezkoak.

San Gregorioko Frontoia

Sestra entpresak egin duen San Gregorioko frontoi berriaren proiektua, aho batez onartu zuen Udalbatzak joan zen azaroaren 2ko plenoan. Bide batez, frontoia egiteko dirulaguntza es-

kaera ofiziala egin zion Udalak Diputazioari. Dirutza hori 40 bat milioietakoa izango litzateke eta laguntza hau izango den ala ez jakiteko, martxoaren bukaerarte itxoin beharko da. Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 94-97 bitartean kirol infraegiturak burutzeko dirulaguntzak banatuko dituen norma forala onartu berria dute eta horrek aginduko du zer, noiz eta zenbaten subentzionatu.

Kultur zinegotzia den Aitor Auzmendik abenduaren 28ko Udalbatza bilkuran azaldu zuenez, Diputazioko ordezkariekin ordura arte izandako bileretan, dirulaguntza hori lortzeko esperantza haundirik somatu ez arren, Santano jaunarekin izandako azken harremanetan, honen ezezko borobilik ez zen izan. Eta aikatutako urtetako aurrekontua onartzean, Diputazioko gobernukideak diren EAJ eta PSE, eta oposiziokideak diren EA eta EuEren artean egindako bileretan, aztergai izan zuten arazo konkretu hau. Frontoi berriaren aurrekontua 81 milioietakoa da.

 Joxe Begiristain

LAZKAO

Bi herritar kartzelan

Adei Barandiaran eta Ramon Begiristain lazkaotarrak Espainiako kartzeletan daude preso, baina Gabon jai hauetan taberna atarietan "izan ditugu". Izan ere, beraien argazkiak han egon dira ahanz ez ditzagun. Atxiloteten gorabeherak eta egun bizi duten egoeraren berri jasotzeko asmoz beren sendietara jo dugu.


Ramon bere lantokian atxilotu zuten iazko irailaren 23an. "Araba" komandoko laguntzaile izateaz salatzen dute. Egindako eskatasun eskaera ezeztatu egin diote. Sumarioa itxi gabe dagoenez epaiketarik ez du izan oraindik. Carabanchelgo espetxean sartu zuten lehenengo, Alcalá-Mecora era-

mateko ondoren. Hantxe dago egun. Askatasunik gabe, ondo inor ez badago ere, zuzenbide ikasketak amaitzen ari den bitartean pazientziz zai omen dago. Ze erremedio!

Adei, berriz, iazko abuztuaren 4ean, goizeko ordubietan eta bere etxean, Polizi Nazionalak atxilotu zuen. Ordubetez bere logela arakatu eta Donostiara eraman zuten. Hiru egunetako legezko inkomunikazioa luzatu eta abuztuaren 7an jakinerazi zitzaion familiari Bueren Epailak, kartzelaratzea erabaki zuela. Carabanchelen sartu zuten eta bertan eman zuten lehen hilabetea. Ondoren ordea, Valdemorera eraman zuten, legez zegoen bi-

sita kenduz; bertan aurkitzen da egun.

Bere kontrako salaketarik ez dago eta beraz, espetxeratua egoteko arrazoirik ez dagoenez, abokatuak berehalako askatasuna eskatu zuen. Epaila-eren erantzuna askatasuna "ez dela komeni" izan zen. Abokatu eta familia bera ere erantzun horrekin ados ez dardenez, azaroan berriz eskatu zuten Adeiren berehalako askatasuna. Oraindik ez dute erantzunik jaso eta zai daude. Adei moralez ondo omen dago eta familiak eskertu egiten du jendearengandik, jende askorengandik, jasotzen ari den laguntza.

 Mari Joxe Madariaga

GOIERRIN IZAN DEN IGERILARI FAMATUENAREKIN SOLASEAN Harri Garmendia, lortutakoarekin gustora

Harri Garmendia beasaindarra Goierrin izan den kirolaririk nabarmenetako bat da. Horrela ba, GOIERRITARRAko elkarriketatu nahi izan genuenean, hauxe bere erantzuna: *"Niri elkarrizketa? Duela lau urte utzi nuen igeriketa mundua, orain ez dut zerikusirik, pasatu zen eta beste bizimodu bat daukat"*. Berak hori esan arren, lortu duena hor dago: 88ko olinpiadetan 15. postua; Europako txapelketetan, 83an zazpi-garren, 85ean seigarren eta 87an hamargarren eta 86ko Munduko txapelketan 12. postuak lortu zituen. Estatu mailan hainbat txapelketa irabazteaz gain, Espainiako errekorrak lortu zituen, 200m. tximeletan eta 200 eta 400m. estiloetan. Hauetatik bat, 200m. tximeleta igeritoki motzean, oraindik ez du inork gainditu.

Harriren ibilbidea luzea izan da, Beasaindik 13 urterekin irten zenetik. Bi urtetan Araban egon zen, hiru urte Malagan eta beste bi Bartzelonan egin zituen, farmazia ikasketetan matrikulatuta. Igeriketa eta ikasketak batera aurrera eramatea ezinezkoa egin zitzaion. *"Erabaki beharra zegoen, igeriketa edo ikasten segi eta bi gauzak egin nahi nituen, beka batekin Estatu Batuetara joan nintzen. Han ikasteko erreztasunak daude, ordu gutxiago sartu behar dira eta hobe planifikatuta dago."* "Ekonomikas" ikasi eta master bat egin ondoren 1992ko uztailean itzuli zen Beasainera.

Beste gauzetan gertatzen den bezala beti gehiago nahi izaten dela dio Harrik



baina, lortu duenarekin gustora dago. *"Gauza gehiago agian lor zitezkeen baina beste bizimodu batekin eta ikusi beharra dago ze bizimodu eraman eta noraino lortu nahi duzun, nik biak ondo eraman izan ditudala uste dut."*


Puntako kirolaria izateko garrantzitsuena burua dela dio, gauzak ondo egin eta irabazi behar dela garbi edukitzea. Horrez gain, zenbat lan egiten den eta inguruko jendea ere garrantzizkotzat jotzen ditu. Entrenatzaile on edo txarrik ez dagoela dio, kaka norberak bere gustoko edo bere antzera pentsatzen duena aurkitzea dela. Igerilaria oso gazterik hasten denez errezagoa da entrenatzailearekin ondo eramaten etxekoekin baino. *"Normalki entrenatzaileak bere bidetik eramaten zaitu, gero, urte batzuk dituzunean, beste zerbait aurkitu behar da. Orduan lagun onak izaten dira, batez ere igerilarien artean eta kanpotik gauzak beste modu*

batera ikusten direnez, etxekoan laguntza beharrezkoa da", dio Harrik, gailurrera iristeko zer behar den adierazi nahiean.

Espainiako Federazioarekin tirabira bat izan zuen 1988an, *"olinpiadetarako gutxienezko marka Estatu Batuetan egin nuen, baina federazioak esan zidan marka hori Espainian egin beharra nuela. Horregatik Seulera joan gabe geratu nintzen eta hemengo probetan gehiago ez parte hartzea erabaki nuen"*. Hala ere, Estatu Batuetan, 90. urterarte jarraitu zuen igeriketan.

Azken aldian igeriketa mundutik urrutiratzen joan da. *"Gaur igeri dabilen jendea ez dut ezagutzen eta nik batez ere, lagunekin egoteko atsegin dut konpetizioak ikustea. Bestalde, 14 urte igeri pasa ondoren, ikusi beharreko guzia ikusi duzula uste duzu"*.

Hemen jendeak kirol asko egiten duen arren ez da igeriketa gehiegi egiten. *"Lehen igeritokirik ez zegoelako, baina gaur herri askotan daude. Nola bait jendea motibatu egin behar da, ordubete beheko baldosinak ikusten aritzea, nahiko aspergarria bait da. Sistema berriak aurkitu beharra dago jendea igeritokira joateko"*. Harrik, berak bizi izan duenak pena merezi duela eta jendea kirol honetan aritu eta gehiago ezagutzera animatzen du.

 **Mikel Albisu**
Ane Martin



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO

Organoa berriztatu behar dute
BERTSOLARIEN AITAPONTEKO ITSASONDOARRA ALTZAN BIZI DA

Bixente Barandiaran: "Bertsotan ematen ditut une goxoenak"

Itsasondoko Urkia lauzoan jaio zen duela 76 urte. 14 urterako hasi zen bertsotan lagunartean eta egin izan ditu bere saioak plazetan, hartu izan du parte zenbait txapelketetan. Idazle bihurtu arren, bertsolari izateari ez dio utziko.

Bertsolaritza uzteko asmotan zen. Araman ere omenaldi-lege bat egin berri zioten (hangoa zuen emazte zena). Baina jaioterrira edo erromerietara etorrita, familiakoak eta ezagunek zer egin behar duen, "errieta" eman diote, etxean gelditu behar al duen bertsopak utzita. Uztea pentsatzeak tristetu egin du Bixente maitagarria eta ahal duen bitartean jarraitu egin beharko du, pe-txuak eta abotsak laguntzen dioten bitartean. Plazara ez doa ordea, lehen bezala gauzez ibiltzeak ez dio ilusiorik egiten; jubilatu, auzo eta halako bileretan kantatzen du, jende asko da plazan egun gainera eta "gazte-jendeak bezainbat ez diagu balio guk kantatze-ko" aitortu digu.

Lanik gabe ezin bizi

Txiki-txikitatik bertsozale, "aitona sentitu izan nuen bertsotan otordu ondorenetan", lagunartean Urkiko Errotakoekin jarduna ikasten, gerra aurretik ibilia Itsasondo eta inguruotan, hura etorrita bertsopak ahaztu zitzaizkien! Donostialdeko Altzara joan zen bizitzera gero. Artzantza eta ikazkintza, nekazaritza eta fabrika, ofizio guztiak probatutako gizona dugu Barandiarandarra. Han bi etxebizitza egin zituen, familia hazi eta ahazturik euki zuen bertsolaritza. Inork ez zekien ber-

tsotan aritzen zenik. 50 urte inguru zituenean bertsotan egiten ikusi zuten lagun batzuek taberna batean. Geroztik tarteka bertsotan eginez bizi izan da, bai inguru haietan eta jubilatu ezkerro kanpora ere dexente atereaz, eratzen ziren txapelketetan parte hartuz. Baita txapelak irabaziz.

Erretiro txarrekoa da bertsolaritza: "Orduan sasoia bagenuen eta aguantatzen genuen", dio. Zeberioarekin asko ibilia da gerora eta hura honekin ibiliko litzakeelakoan egoten omen da oraindik, baina Bixenteri sasoia joan zaio horretarako. Bertsolari-omenaldietan eta aukietara deitzen dute, "Ibai-ertz"i egin behar zaionean ere oholtzaren gainean izatekotan zen Urkikoa.

"Zaartu gabe ezin bizi"

Bertso-saltsetan gustora dabil Bixente: "laguntasuna ondo etortzen duk; idatzia eskatzen digutenekin bete eta...". Idazteko ere eskarmentua behar du. Bere bizitzako pasartez gain, Lizardiko krimenaren eta Idiazabalgo itzaiaren hilketaren berri zuzena bikainkiro eman zigun. Akatsen bat egin zuelakoan dago halere eta idazterakoan inor ez kaltetzea du gogoan. Ahozko tradizioetik datorrenak utzi du gerorako fruiturik.

Bi urte bota liburua idazten eta jubilatu honen opera primak gusto gozoa utzi dio nonbait: beste liburu bat ere idazten hasia baita, Auspoako zuzendaria den Aita Zavalak hala eskatuta. Erdia idatzia omen du, gaztetako erromerien gaia jorratzen du eta izenburua ere aurrez ipinia dio: "Lanik gabe ezin bizi". Berari gertatutakoa. "Bertsotan bezalaxe, gai bat ematen badizue hari jarraitu behar diozu, lehengo muin



hartatik segi". Pasadizuak bukatu zaizkiolakoan dago bera, baina badirudi ganbara husten zaila izango duela kontalari harrigarri honek.

Murumendiraino igo berria da oraindik orain, sinestezina badirudi ere. Osasuntsu dabil. Baina, behar duen bizimodua ezin du eraman. Lanik egin gabe bizi behar luke; ezin, ordea: baserria gobernatzen du... Gustoko lagunak behar lituzke, baina bere mundua joaten ari zaio. Joaten ari den mundualdiaren kontuak jartzeko lana hartzea eskergarria da.

Lagunak elkarren esanera jarrita gustatzen zaizkio Bixenteri. Bertsopak jartzen ematen ditu "rato"rik goxoenak; gainontzean, koadrila lagun batzuekin ("Basarri", e.a.) tertulian egiten du Donostiako "Valles"nean. Horien arrazoi eta konbertsazioekin ikasten eta gozatzen du. Arrazoi onen eta errespetuzko bileren zale, ikasten ari den gaztea dugu Bixente.

✍ Jon Mikel Arano

Alfontso Mari Zabala Etxeberria (1847-1919)

Ezkion jaio zen,
Gasteizko
seminarioan ikasi eta
Hondarribia, Zegama,
Donostia eta Hernanin izan
zen apaiz, azken herri
honetan hil zelarrik, 72
urterekin.

Azken gerrate karlistan kapelau, "Euskal-Herria" aldizkarian kolaboratzaile eta "Euskal Esnalea"ren zuzendari. Irungo Euskal Jaietan Kanpion, Manterola eta Zegamako Otaegirekin batera epaimahaiko; Hondarribia eta Donostiako Lore Jokoetan saritua. Ipuinak eta, batez ere, umorezko antzerkitxoak idatzi zituen.

Hona segidan "Ori dek irrintzia, ori dek arrantza" ipuin irrigarria:

LEGAZPIARRAK azkarrak eta erneak diralako sona dute, bañan azkarren artean ere kirten antzeko batzuk sortzen dira, pasadizo onek aditzera emango duan bezela. Aiztorrondon jayo, azi ta bizi izan zan artzai gazte bat joan zan bein batean konpesatzera Legazpiko abade batengana; asi zuten konpesioa, eta ez dakit zeren gañean,

esan omen zion abadeak ia zerbait zeukan.

--Bai jauna, badaukat -esan zuen artzaiak.

--Zer daukazu ba?

Bañan artzaya omen zegon ixilik, eta noizik bein burua jiratuta, kanpora begiratzen zuala.

--Esazu, esazu bildurrik gabe dezuna -esaten zion konpesoreak-, pekatu egiteko lotsatu bear da eta ez konpesatzeko.

--Nik ezin esan dezaket ba egin dedan pekatua -erantzun zion azkenean ere artzaiak.

--Zergatik ez ordea?

--Zergatik emen dauden auek adituko duten.

--Esazu ixiltxorik.

--Ezin liteke ordea.

--Beraz, beste lekuren batean esan bear ko didazu?

--Bai, nai badu.

--Goazen ba korura eta an esango dezu.

--Goazen ba.

Igo ziran bada korura, eta ara emen


artzaiak egin zuan konpesioa:

--Ez dakit berorrek jakingo duan, nola ezkontzen naizen Kortako abala gaztenarekin? Bada, lengo ostegunean Arriurdingo zelayan nere ardiekin nebillela, ikusi nuan zijoaztela Arantzazura nere andregaya eta bere ama, urruti xamarretik ezagutu nitun, eta nun negoan aditzera emateagatik olaxe irrintzi egin nien: Ji... ji... ji... jiiii...!

Eta egin zuan irrintzi bat eliza guztia aidean ipiñi zuana, esanaz konpesoreari:

--Ara emen nere pekatua.

--Ago ixilik, kirtena! -esan zion abadeak aoa eskukin estaliz- ori ez dek irrintzia, ori dek arrantza, eta i bezelako astoak errotan obeto zeudek elizan baño. Eta utzirik koruan artzai iñozooa, joan zan bere konpesonariora, itxogiten zeudenak konpesatzera.

 Aizkorriekoak

IBARRE

TABERNA ETA DENDA

Udaletxe plaza, Tfonoa: 880513 ITSASONDO

SIBONEY

Estetika guztia
Ana Kristina Olano

Senpere Zentru Komertziala
88 15 50 Tfonoa. BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

Irakur

EUSKALDUNON
Egunkaria



AMPO S.COOP B.L.
IDIAZABAL Gipuzkoa

ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarridun aleazioak.

AENOR-ek onarturiko empresa

ISO 9002 Tel.: 80 14 42 - Faxa: 80 18 62



AMPO S.COOP R.L.
BEASAIN Gipuzkoa

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
 - Bertan, 2 "diametro duten balbuletati 48" arterainokoak egiten dira.
 - Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxeetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
 - Honako etxe hauetaz homologatua: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENAGAS, GAS EUSKADI.
- Tel.: 88 60 50 — Faxa: 88 88 47



Fotokonposaketa lanak egiten ditugu **GOIERRITARRA**n, kartelak, foiletoak, inprimakiak eta mota hauetako lanak. "ANTZA" inprimategiarekin bat (*maisuen eskutik*) zure inprimategi lanak egingo ditugu. Deitu lasai ☎ 88 96 12 ♣

FOTOKONPOSAKETA

ANTZA

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnoak: (943) 37 15 45 Faxa: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

GRAFIKAGINTZAN
AURRERA GOAZ